

Zer egin?



Iñaki Odriozola
Sustaeta
IDAZLEA
@Inaki_Odriozola

Kalean nindoala, baikor antzean, Varufakis ekonomialari famatuari entzun bainion kapitalismoa bere burua irensteko bidean doala nahitaezko bilakaeran, hara non ikusten dudana aspaldiko lagun bat, bizi guztiko ezkertiarra, koherentea, gorri-gorria, Caritas-eko mahaian arropak jasotzen.

Harriduraz begiratu nion, eta segundo hamarren baten buruan gure bizitza guztia pasatu zitzaidan burutik, hots, langileen aldeko borroka, mobilizazioak, manifestazioak, ihesak, lan sindikala... Bizitza osoa eraldaketaren zerbitzura. Ikusi ninduenean: “Zer harrituta?”, esan zidan. “Bada, bai”, erantzun nion: “Hau da urte askotan gehien gorrotatu izan duguna, karitatea. Kapitalismoaren aldekoek aurpegia garbitzeko erabili izan ohi dutena, hain zuzen ere, eta aldi berean, eraldaketa oztopatzeko balio izan duen karitate kristaua”.

“Bada, begira” erantzun zidan lagunak: “Hiru-roguei urte ditut, eta orain artekoa ikusi eta gero, joan zait ezer aldatzeko itxaropena. Eta gutxienez egungo behartsuei laguntzea erabaki dut. Orain, ustez ideologiarik gabeko beste zenbaitzuekin biltzen naiz, eta erabilitako arropak biltzen eta banatzen ditugu...”

“...eta datorren astean ere, saltoki handien atean jarri, eta erosketak egitera sartzen direnei poltsa emango diet, irteeran janariz beteta ekar dezaten, ea lortzen dugun janaria behar dutenen

beharrei aurre egitea”. Etxera joan nintzen, erabat lur jota.

Arnaldo Otegi, Euskal Herrira begira, “iraultza” kontserbadoreaz ohartarazi gaitu behin baino gehiagotan, baina aldaketa sakon atzerakoi hau lehen mundu osokoa dirudit honez gero. Elite ekonomikoak, berrantolaketa (edo krisia) eragin zutenak asezinak dira, eta agintarien laguntzarekin, lan baldintzetatik hasi, eta oinarritzotzat genituen zerbitzuetara, dena galarazten ari dira; dena dago arriskuan, edozer merkaturen menpe jarri baitaiteke: gauzak eta irudiak, gorputzak eta ideiak, banakakoak eta egiturak, sentimenduak edo emozioak barne. Eta egiten ari dira.

Eta “zer egin?”. Bada, orain momentuan, egia esan, ez zait bururatzen ezer, eta ez dut irakurri ez entzun azkenaldian, ezker aldekoen aldetik, lirluratu gaituen zerbait, piztuko gaituen zerbait. Eta langileak, herritarrak, gehiengoa, eskuinekoen ustezko konponbideetan sinesten hasi da, besterik ezean, besterik ez balego bezala.

Thomas Hobbes filosofoak, jendarte honen bultzatzaileetako batek, gizakiari buruzko ideia latza zeukan, eta hauxe zioen: “Limosna ematen dugunean ere, ez dugu ematen bihotz onekoak garelako, norbera egoera horretan egoteko beldurrak eraginda baizik, nahiko genukeelako geuri ere ingurukoek laguntzea”. Bada, kalean dagoen eskaleari zerbait eman beharko diodala bururatu zait, lehen aldiz, aurretik pasatzean. Hau da hau! ■

XXI. mendea: iraultza feminista



Itziar Bardaji
Goikoetxea
IRAKASLEA

Erussiar iraultzaren mendeurrena zarata gehiegirik gabe pasa da, sozialismoa ahaztu beharreko zerbait dela sinetsi du munduak, eta ekologismo *green* delakoa kapitalismoak irentsi du. Neoliberalismo finantzario tekno-zorroak ez du aurkaririk. Zer eska diezaiokegu berri onik ematen ez digun mende honi?

Nik feminismoaren gorakada geldiezina eskatzen diot. Feminismoak pertsonen arteko zapalkuntzak berrulertu eta birpentsatzeko tresnak ematen dizkigu, lanaren kontzepzioa zabaldu eta gure bizitzaren, gure denboraren eta gure gorputzen merkatzea salatzen angelua irekitzen du.

Sakonean, armiarma sareak tapaturik eta leiho gabeko sotoetan ikusten ez zena argira ekarri du azken hamarkadetan. Eta subjektu bat. Aniztasunaren ulergarritasun berritua eta desobediencia freskatua sistemari, portaera ereduari, gizarte oso bati, eta nork bere buruari.

Eta ofentsibarako modu berriak: aurtengo martxoaren 8ko lan, ikasle, kontsumo eta zaintza greba deialdia inflexio puntu bat izan daiteke. Gure lan guztietan, *Emakumeok* planto* egiteak duen potentzial iraultzaileak gure irudimena gainditzeko du. Irribarre bat itxaropen urriko mende madarikatu honetan. Zirraragarria. ■